



## EUSKADIKO HITZARMENAK INDARREAN DARRAI

Joan den azaroaren 26an EAeko Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salak sindikatuek jarritako gatazka kolektiboa onartu zuen, Kristau Eskola eta AICE zigortzen zituen eta Euskadiko hitzarmena betetzera behartzen zituen. Epaia ez betetzeko eta Auzitegi Gorenak arrazoia emango dielakoan, patronalek epaiaren aurkako helegitea aurkeztu zuten.

Alde sindikalak berriz, EAeko Auzitegi Nagusiari eskatu zion gatazka kolektiboari buruzko behin behineko egikaritzea (Auzitegi Gorenak behin betiko epaia eman arte) eta hark, otsailaren 18an emandako autoan arrazoia eman zigun, beste behin, langileoi.

Kristau Eskolak eta IZEAK hitzarmena bete gabe jarraitzen dutenez alde sozialak, apirilaren 1ean aurkeztutako idazki baten bidez, berriz eskatu zuen epaiaren behin behineko egikaritzea.

EAeko Auzitegi Nagusiak, apirilaren 8an beste auto berri bat eman du eta bertan argi eta garbi adierazten du Patronalek beharrezko neurriak hartu behar dituztela euren ikastetxeek Euskadiko hitzarmena lehenbailehen bete dezaten.

Autoak zera dio: *"Se acuerda la ejecución provisional de la sentencia dictada en este procedimiento, de fecha 26 de noviembre de 2013, requiriéndose a las codemandadas Kristau Eskola y AICE a su cumplimiento en los términos establecidos en su fallo y consecuentemente con lo anterior, se les requiere para que remitan comunicación a sus centros asociados indicando que el Convenio colectivo de Centros de Enseñanza de iniciativa Social de la CAPV 2008-2009 sigue siendo de aplicación a todas las empresas y trabajadores de los centros de enseñanza de iniciativa social incluidos en el ámbito de aplicación del convenio...."*

STEE-EILASek exijitzen die Patronalei epaiaren behin behineko egikaritzea bete dezaten eta ikastetxeei Euskadiko hitzarmena lehenbailehen bete dezaten.

**Gure lan hitzarmena orain !!  
Murrizketarik ez !**



<b>ARABA:</b> Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	✉ araba@stee-eilas.org
<b>BIZKAIA:</b> Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	✉ bizkaia@stee-eilas.org
<b>GIPUZKOA:</b> Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	✉ gipuzkoa@stee-eilas.org
<b>NAFARROA:</b> Joaquin Beunza 4-6 behea	31014 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	✉ @stee-eilas.org